



LEKEITIO JAI ALAI MASTER SERIES

MARTXOAK 23 ETA 28
SANTI BROUARD PILOTALEKUA
23 Y 28 DE MARZO · FRONTÓN SANTI BROUARD · 2024



JAI ALAI LEAGUEKO TXAPELKETA OFIZIALA IZANGO DU LEKEITIOK, ASTE SANTU HONETAN (Eus)

- *Martxoaren 23an jokatuko dira Master Seriesko finalerdiak eta 28an final handia*
- *Erkiaga-Manci, Johan-Zabala, Laduche-Basque eta Urreisti-Lekerika, lau bikoteak*
- *Women Winter Series desafioa ere jokatuko da hilaren 28an*
- *Urtez urte, Lekeitio bere zesta-punta eskeintza handitzen ari da, publikoaren erantzuna ikusita*
- *Sarrerak eta bonoak eskura www.eramanjaialai.com atarian*

Lekeitioko herriak **JAI ALAI LEAGUE zirkuituko txapelketa** hartuko du aste santu honetan. Ez da urteko zita bakarra izango, udaran ere beste bi eguneko Master bat jokatuko baita eta urtea amaitu aurretik, bosgarren jaialdi bat antolatzeko asmoa dago. Urtez urtez goruntz doa zesta-puntaren eskeintza Lekeitioan eta egutegi zabal horretatik, lehen txapelketa hau ligarako puntuagarria izango da.

Kirol arloan, berrikuntzekin dator Master Series hau. Izar nagusia, zelan ez, **Aritz Erkiaga** ispastertarra da. Etxekoa. Lekeitioko harrobitik ateratako puntista. Santi Brouarden izango da **Johan Sorozabal** ere, Durangon Erkiagari buruz buru irabazi berri diona. **Unai Lekerikak** ere ez du hutsik egingo. Bera da, Winter Serieseko atzelari finalista. Berritasun nagusien artea hala ere, **Jon Zabala** markinarra daukagu. Iazko udan lesio larria izan zuen eta guztiz errekuperatuta, Lekeitioko Master Seriesa izango da bere itzulerako lehen txapelketa ofiziala.

Baina gazteek ere izango dute aukera Master Series honetan. Alde batetik, Lekeitio txapela irabazitakoa den **Mikel Manci** mutrikuarra, eta bestetik, profesional mailan lehen pausuak eman nahi dituen **Eñaut Urreisti** bere herritarra. Hogei urte bete gabe dago oraindik Urreisti. Txapelketako beste bi pilotariak **Ludovic Laduche** eta **Thibault Basque** izango dira, biak ere, lapurtarrak.

Ligako ranking-ean, 1.000 puntu eskuratuko ditu Master honen bikote irabazleak, 600

puntu azpitxapeldunak eta 360 puntu, finalerdietako partida galtzen dutenak. Horixe da ligaren barruan, Master kategoriako txapelketei dagokien puntuazioa.

- **Emakumeen errebatxa**

Gizonezkoen txapelketaz gain, emakumeen zesta-punta ere ikusgai izango da Lekeitio. Durangon jokatu berria da Euskotren Winter Series txapelketa, **Erika Mugartegi** eta **Maialen Aldazabal** izan dira irabazole eta txapelketa horren desafioa jokatuko da hilaren 28an Lekeitio.

- **Zesta-punta goruntz Lekeitio**

Momentu honetan 22 zestalari daude izena emanda Lekeitioko Akarregi pilotarik elkartean. Iaz baino zertxobait gehiago. Guztira, pala eta eskua batuta, 48 pilotari dira elkartean eta lau entrenatzaile ari dira gaztetxoekin lanean. Bi zestaz eta beste bi eskuz.

Profesionalen zesta-punta jaialdiak ere, urtez urte goruntz doaz. Bi funtziotik lau izatera pasa zen iazko urtean (Aste Santuko Masterra eta udakoa). Aurtentikoa, bi Master horiek jokatuko dira, bakoitzak bi jardunaldikoa, eta urtea amaitu aurrelik bosgarren jaialdi bat antolatzeko ari dira lanean.

Kantxari dagokionez, 52 metro luzeko frontoia da eta lurzoru edo behegaine bizikoa. Kontrakantxako sarea ere gertu dago eta horrek errematerako frontoi aproposa egiten du Santi Brouard. Orohar, partida bizi eta ikusgarriak ateratzen dira frontoi honetan eta kantxa naturala da. Aitzakiarik gabekoa.

- **Sarrerak eta bonoak**

Txapelketako bonoak (20 €) eskuragai daude jada www.eramanjaialai.com online takillan. Finalerdiko jaialdiak 12 € balio du, finalekoak 15 € eta jaialdi bakarrako sarrerak astelehenean jarriko dira salgai.

MASTER SERIES LEKEITIO**Martxoak 23 · 19:00 · Finalerdiak**

Johan – Zabala vs
Laduche – Basque

Erkiaga – Manci vs
Urreisti – Lekerika

Martxoak 28 · 19:00 · Finala + Desafioa

Master Serieseko Final Handia

Women Winter Series desafioa:

JAI ALAI LEAGUE 2023-24

- 1- **OPEN INTERNATIONAL BIARRITZ: Goikoetxea-Lopez** (urriak 26-28)
- 2- **EUSKO LABEL WINTER SERIES: Erkiaga-Ibarluzea** (urriak 30-otsailak 18)
- 3- **CESTA DE NADAU-PAU: Erkiaga-Minvielle** (abenduak 8-22)
- 4- LEKEITIO MASTER SERIES (martxoak 23-28)
- 5- ZUMAIA MASTER SERIES (apirilak 1-8)
- 6- CESTA ALL STAR-DONIBANE LOHITZUNE (apirilak 7-25)
- 7- ARABA EUSKARAZ MASTER SERIES (apirilak 13-25)
- 8- BILBAO IRON CUP (maitzak 10-ekainak 7)
- 9- MARKINA-XEMEIN GRAND SLAM (ekainak 15-uztailak 16)
- 10- INTERNATIONAUX CESTA PUNTA (uztailak 4-abuztuak 27)
- 11- URREZKO XISTERA BIARRITZ (uztailak 8-abuztuak 21)
- 12- PAU CUP (uztailak 12-irailak 6)
- 13- GERNIKA GRAND SLAM (uztailak 20-abuztuak 7)
- 14- FINAL FOUR DURANGO (urria)

LEKEITIO CONTARÁ CON UN MASTER DEL “JAI ALAI LEAGUE” ESTA SEMANA SANTA

- *Las semifinales del Master Series se jugarán el 23 de marzo y la gran final el 28 de marzo*
- *Erkiaga-Manci, Johan-Zabala, Laduche-Basque y Urreisti-Lekerika lucharán por la txapela*
- *El Winter Series femenino tendrá su desafío el día 28*
- *La oferta puntista de Lekeitio va en aumento año tras año, con una respuesta magnífica en cuanto a público*
- *Entradas y bonos disponibles en www.eramanjaialai.com*

Lekeitio contará con un **torneo oficial en el JAI ALAI LEAGUE**. No será la única competición que se jugará este año. En verano se jugará un segundo Master de dos días y se está trabajando para organizar un quinto festival antes de fin de año. La oferta puntista de la localidad costera va “in crescendo” y este primer Master del año será puntuable para la liga.

En el aspecto deportivo, este Master cuenta con varias novedades. La figura principal sigue siendo **Aritz Erkiaga**. El de Ispaster juega en casa. Dio sus primeros pasos en el club de Lekeitio y no le faltarán ánimos en el Santi Brouard. Tampoco fallará **Johan Sorozabal**, pelotari que le acaba de ganar a Erkiaga, mano a mano en Durango. Otra de las atracciones es **Unai Lekerika**, subcampeón del Winter Series. Sin embargo, la principal novedad es la del markinarra **Jon Zabala**. Sufrió una importante lesión en verano y vuelve oficialmente a las canchas en el Master Series de Leketio.

El torneo abrirá este año sus puertas a dos jóvenes. Por un lado, **Mikel Manci**. El mutrikuarra ya ha ganado una txapela en Lekeitio y vuelve al Santi Brouard. Por otro lado, su paisano **Eñaut Urreisti**. Este hábil delantero todavía no ha cumplido los 20 años y tendrá su oportunidad en una prueba puntuable de la liga. Los otros dos pelotaris del Master Series son **Ludovic Laduche y Thibault Basque**, ambos de Lapurdi.

Como decimos, el torneo es puntuable para el Jai Alai League. Los ganadores sumarán 1.000 puntos, los subcampeones 600 y los que no lleguen a la final, 360 puntos. Es la puntuación que se les designa en la liga a las competiciones de categoría Master.

- **Revancha femenina**

Además del torneo masculino, Lekeitio contará con un desafío del Euskotren Winter Series. **Erika Mugartegi** y **Maialen Aldazabal** se proclamaron campeonas en Durango y ahora se jugará el desafío correspondiente en Lekeitio.

- **La oferta puntista se amplía en Lekeitio**

La oferta puntista de Lekeitio va en aumento. El año pasado se pasó de uno a dos Masters (uno en Semana Santa y otro en verano). Este año, además de esos cuatro festivales, se está trabajando para organizar un quinto.

El aumento de los partidos profesionales va acorde con el interés que suscita este deporte en la localidad costera. Año tras año va creciendo el número de pelotaris que dan sus primeros pasos en la asociación de pelota Akarregi. En estos momentos cuentan con 22 puntistas, algo más que el año anterior. Sumando palistas y manistas, son 48 pelotaris en total. Cuentan con cuatro entrenadores: dos en cesta y otros dos en mano.

En cuanto a la cancha, el Santi Brouard tiene una longitud de 52 m y cuenta con un suelo "vivo". La pelota corre bastante en la cancha, el juego suele ser vivo y el frontón es adecuado para el remate. Una cancha atractiva y sin excusas.

- **Entradas y bonos**

Los bonos del Master Series (20 €) ya están a la venta en la taquilla online www.eramanjaialai.com. El precio de las semifinales será de 12 € y el de la final 15 € (online). Estas entradas saldrán a la venta a partir del lunes.

MASTER SERIES LEKEITIO

23 de marzo · 19:00h · Semifinales

Johan – Zabala vs
Laduche – Basque

Erkiaga – Manci vs
Urreisti – Lekerika

28 de marzo · 19:00h · Final + Revancha

Fran Final del master Series

Desafío del Women Winter Series:

JAI ALAI LEAGUE 2023-24

- 1- OPEN INTERNATIONAL BIARRITZ: Goikoetxea-Lopez** (26-28 octubre)
- 2- EUSKO LABEL WINTER SERIES: Erkiaga-Ibarluzea** (30 octubre-18 febrero)
- 3- CESTA DE NADAU-PAU: Erkiaga-Minvielle** (8-22 diciembre)
- 4- LEKEITIO MASTER SERIES (23-28 marzo)**
- 5- ZUMAIA MASTER SERIES (1-8 abril)**
- 6- CESTA ALL STAR-DONIBANE LOHITZUNE (7-25 abril)**
- 7- ARABA EUSKARAZ MASTER SERIES (13-25 abril)**
- 8- BILBAO IRON CUP (10 mayo-7 junio)**
- 9- MARKINA-XEMEIN GRAND SLAM (15 junio-16 julio)**
- 10- INTERNATIONAUX CESTA PUNTA (4 julio-27 agosto)**
- 11- URREZKO XISTERA BIARRITZ (8 julio-21 agosto)**
- 12- PAU CUP (12 julio-6 septiembre)**
- 13- GERNIKA GRAND SLAM (20 julio-7 agosto)**
- 14- FINAL FOUR DURANGO (octubre)**